



**ADMINISTRAZIOKO KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUA, ARETXABALETAKO
KIROLDEGIAREN KUDEAKETA OSORAKO.**

LEHENENGO KLAUSULA. Objektua eta kalifikazioa

Kontratuaren helburua da, Aretxabaletako kiroldegiaren kudeaketa osoa gauzatzea, eta gizarte bazterketa arriskuan edo langabezian dagoen biztanleriaren artean enplegua sustatzea.

Zehazten den kontratuak, zerbitzu publikoen kudeaketarako administrazio kontratuaren kalifikazioa du, Sektore Publikoko Kontratuen, urriaren 30eko 30/2007 Legearen 8. artikulua ezartzen duen bezala.

Zerbitzu publiko horren kudeaketak hartuko du:

1. Kiroldegiaren USTIAKETA ETA KUDEAKETA OSOA.
2. 200.000 €tan (BEZ barne) baloratuta dagoen fitness gela hornitzeko inbertsioak egitea, Aretxabaletako Udalarekin bat etorritz.

Kudeaketa gai diren zerbitzu publikoak ondorengoak dira:

Kudeaketa gai diren zerbitzu publikoak, Kiroldegian ematen diren zerbitzuei dagozkienak dira, eta horietan sartzen dira ikastaroak, kanpainak, eskola kirola, etab... eta igerilekuetako sorospen jarduera.

Lan horietan, era berean, aurreikusten dira instalazioen mantentze lana, garbiketa eta funtzionamendu egokia, beharrezko diren giza baliabideak, materialak, antolaketakoak edo zuzendaritzakoak eskura jartzea eta instalazioak erabiltzeagatik ezarriko diren diru kopuruak kobratzea.

Kontratuaren helburua bete ahal izateko, esleipendunak, esleipenaren xede diren instalazioak edo eraikina edukiko ditu eskura, eta bertan gerta daitekeenaren erantzule bakarra izango da, horretarako adierazitako epeekin bat etorritz.

Instalazioen harreraren eta haietarako sarreraren kontrola esleipendunari dagokio.

Kudeaketaz ulertzen da, dagozkigun instalazioek eraikiak izan direneko helburua bete ahal izateko beharrezko diren eginkizun guztiak bere gain hartzea.

Zerbitzua emakida bitartez ustiatuko da eta enpresariak zerbitzua bere arrisku eta menturara kudeatuko du.

BIGARREN KLAUSULA. Hautaketa eta esleipen prozedura.

Aretxabaletako kiroldegia osorik kudeatzeko Kontratua, prozedura ireki bidez esleituko



da, eta esleipen horretara, interesa duen edozein enpresarik aurkeztu ahal izango du proposamena, kontratuaren terminoen negoziazio oro baztertuta geratuz, Sektore Publikoaren Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 141 artikularekin bat etorritik.

Proposamenak baloratzeko eta eskaintza ekonomikorik onena zehazteko, hainbat irizpide edukiko dira kontuan. Irizpide horiek kontratuaren helburuari zuzenean atxikitakoak izango dira, Sektore Publikoaren Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 134.1 artikularekin, eta Plegu honetako hamargarren klausularekin bat etorritik.

Proposamenek gutxienez euskaraz idatzita egon beharko dute.

HIRUGARREN KLAUSULA. Kontratugilearen perfila

Gardentasuna eta bere kontratu-jarduerari buruzko informazioa jendearen eskura egotea ziurtatu ahal izateko, eta beste publizitate bitarteko batzuk erabiltzearen kaltetan gabe, Udal honek Kontratugilearen Perfila dauka, zeinetara, ondorengo web orrian arautzen diren zehaztapenen arabera sartu ahal izango den: www.aretxabaleta.com

LAUGARREN KLAUSULA. Kanona

Gainera, kanon finkoaz gain, Gastu Orokorrak eta Etekin industrialak kendu ondoren lortutako etekinaren gaineko kanon aldakorra eskainiko da. Kanon aldakorra hori etekin horien %50ekoa izango da. Kanon aldakorra urtero kitatu eta ordainduko da, esleipendunak aurreko ekitaldia ixten duenetik hasi eta hilabeteko epean. Horretarako, udalak beharrezko irizten duen dokumentazioa eskura jarri beharko du esleipendunak, eta bereziki ustiatetari dagokion kontuak (Galerak eta Irabaziak eta Egoeraren balantzea) dagokion Merkataritza Erregistroak behar bezala izapidetuta.

2012 urtean, esleipendunak Aretxabaletako kiroldetgia ustiatzeagatik galerak izango balitu, udalak laguntza ekonomikoren bat ematea aztertu ahal izango du.

BOSGARREN KLAUSULA. Kontratistaren ordainsaria

1. Tarifak

a) Kirol instalazioak erabiltzeko tarifak eta haien eguneratzea, kudeaketa planean zehaztuta egongo dira. Esandako Programan aldaketak egin ahal izateko beharrezkoa izango da Ogasun Batzordearen aurrean aurkeztea eta hark behin aztertu ondoren Osoko Bilkurara eramango ditu bertan onartu eta Ordenantza Fiskaletan jasotzeko. Proposamen ereduaren pertsona fisikoentzako (adinka) familia unitateetarako, taldeentzako eta beste erakunde mota batzuetarako, bazkide kuota ezarri ahal izango dira; baita banakako zerbitzuak erabiltzeko ere. Udala, enpresa esleipendunak tarifa berriak ezartzeko egiten duen proposamenarekin ados ez badago, haiek Osoko Bilkurak ezarriko ditu.



b) Tarifak kostu errealetan oinarrituko dira, beti ere kostu iraunkorrak, amortizaziokoak eta materiala berritzeko kostuak kontuan izanik eta Udalak onartzen dituen tarifa sistemei buruzko irizpideak.

c) Instalazioa puntualki eta noizean behin erabiltzeko prezio bat jarriko da, eta ez da ezinbesteko baldintza izango bazkide izatea, bertara sartu ahal izateko/ bertara sartzeko ezingo zaio inori bazkide izatea eskatu.

2.Ustiapen-kontua:

2.1.Instalazioen ustiapen-kontuak, ez du zer ikusirik izango esleipendunaren berariazko kontuarekin eta independentea izango da. Egiterakoan ondorengo irizpideak edukiko dira kontuan:

a) Kudeaketaren ordainsari kontzeptuan (industria etekina) ustiapen kontuan sartu ahal izango da, zerbitzuak sortutako diru-sarreraren %6ra artekoa gehienez ere, eta beti ere zalantzazko kobrantzako hartzekodunen aurreikuspenak kendu ondoren.

b) Gastu orokorrak ezingo dira guztiaren %10etik gorakoak izan, zerbitzuaren ustiapen-kontuan aurreikusitako ekonomia oreka lortu arte.

c) Ustiapen-kontuan, esleipendunak egindako inbertsioen amortizazio teknikoak aurreikusiko dira, hobekuntzen kontzeptuan.

e) Ezarritako kanona ere, bertan aurreikusiko da.

2.2.Urtero, ustiapen-kontuen berri emango zaio Udalari.

3.Inbentarioa

- a) Esleipenduna behartuta dago , instalazioan dauden ondasun higitarren liburu-inbentarioa egin eta mantentzera, eta bertan ondasun horien ezaugarriak jasoko dira, marka, modeloa eta baita beren balio ekonomikoa eta egungo egoera.
- b) Instalazioaren ustiapen-kontuaren kontura erositako ondasun inbentariagarri edo suntsigarriak, udal jabetzakoak izango dira eta inbentario-liburuan jasoko dira.
- c) Kontratua esleitzen den momentuan, inbentario bat egingo da eta aldizka eguneratu egin beharko da.

SEIGARREN KLAUSULA. KONTRATUAREN IRAUPENA

Aretxabaletako kiroldegiaren osoko kudeaketarako kontratuaren iraupena 10 urtekoa izango da, eta beste bost urtez luzatu ahal izango da, 20 urteko mugara arte.



Luzapen hori, kontratazio organoak erabakiko du espresuki eta ezinbestekoa izango da enpresariarentzat, kontratuak espresuki alderantzizkoa esaten ez badu behintzat, eta ezingo da luzatu bi aldeen arteko adostasunez soilik.

ZAZPIGARREN KLAUSULA Kontratistaren eskubideak eta betebeharrak.

Kontratistaren eskubideak eta betebeharrak ondorengoak izango dira:

Esleipendunaren kontura izango dira, lizitazioaren eta esleipenaren iragarkiaren edo iragarkien gastuak eta zergak, eta indarrean dauden xedapenen arabera aplikaziozkoak diren beste guztiak, haiek adierazitako eran eta zenbatekoagatik.

Erabiltzaileei, zerbitzuen eta instalazioen erabilerari dagozkion tarifen zenbatekoa kobratzea, Aretxabaletako Udalak onartutako tarifekin bat etorriz.

Zerbitzua emateko beharrezko diren herri jabetzako ondasunak erabiltzea.

Zerbitzua, kontratua amaitu arte ematea.

Zerbitzuaren kudeaketa hobetzeko hobekuntzak edo berrikuntza teknikoak edo beste era batekoak proposatzea.

Zerbitzua, adostutako jarraipen eta erregulartasunarekin ematea, inolako etenik gabe, ez badira kudeaketa udal administrazioaren esku egonda, emango liratekeen berberak. Kontratua amaitzen denean esleipendunak zerbitzua ematen jarraitu beharko du, haren kudeaketaz beste norbait arduratzen den arte.

Zerbitzua zuzenean ematea, kontratuan ezarritako baldintzak betez eta kontratazio organoak emango dituen jarraibide eta aginduei jarraituz, Oinarri hauen eta onartutako Baldintza Teknikoen aurreikuspenekin bat etorriz.

Zerbitzuaren funtzionamendutik sortutako kalteei erantzutea, bai hirugarren batzuei eragindakoei baita udalbatzari ere eta beti ere ez badira udalbatzarrak, nahitaezko izaeraz ezarritako klausularen bat betetzean egindakoek sortutakoak./ Zerbitzuaren funtzionamendutik sortzen diren beste hirugarren batzuei nahiz udalbatzari eragindako kalteei erantzutea eta beti ere, ez badira udalbatzarrak nahitaezko izaeraz ezarritako klausularen bat betez egindako ekintzen ondorioz sortutakoak

Aurrera eramango dituen lanen kalitate teknikoaren erantzule izatea; baita, kontratuaren gauzatzean egindako hutsegite, akats, metodo ezegoki edo ondorio okerrekin Administrazioari edo beste hirugarren batzuei eragiten dizkieten ondorioen erantzule ere. Bere erantzukizunaz salbuetsita geratuko da, antzemandako bizioak Administrazioaren agindu baten ondorio zuzena direnean edo berak ezarritako baldintzena.

Bere ardura izango da era berean, erabiltzaileak instalazioak behar bezala erabiltzea.



Esleipendunak, beharrezko diren aseguru poliza guztiak kontratatuko ditu. Poliza horiek ondorengo estaliko dute: Suteak, uholdeak, arrisku estentsiboak, lapurretak, espoliozioak, jarduera eteteagatiko kalte-ordainak, talde informatikoetan eragindako kalteak, erabiltzaileekiko erantzukizun zibila eta erantzukizun zibil patronala.

Lapurreta, sute eta uholde arriskuei dagokienez, kasuan kasuko aseguru etxearekin aurreikusi beharko da, instalazioaren zati baten edo osoaren desagertzea eragin dezaketen hondamendietan, polizaren onuraduna Aretxabaletako Udala izango dela.

Aseguru polizak 3 milioiko gutxieneko kapitalarekin estaliko ditu, bere baitan jasotako lapurretak eta ondasunak kaltetzea.

Beste hirugarren batzuei eragindako kalteen erantzukizun zibilagatiko aseguru polizen bermeak, ondorengoak izango dira, gutxienez

Erantzukizun zibil orokorra:

Ezbehar eta urte bakoitzeko muga milioi bat (1.000.000) euro.

Biktima bakoitzeko muga 300.000 €

Erantzukizun zibil patronala:

Ezbehar eta urte bakoitzeko muga milioi bat (1.000.000) euro.

Biktima bakoitzeko muga 90.000 €

Erantzukizun zibil lokatiboa: barne

Era berean, esleipendunaren kontura izango dira eraikina eta bere jabetzak eta instalazioak funtzionamendu, kontserbazio eta garbiketa egoera onean mantentzea, eta berak ordaindu beharko ditu, kontratuak dirauen bitartean, beharrezko diren mantentze lan eta konponketak, edozein izanda ere haiek hondatzeko arrazoia eta zenbatekoa. Hortik kanpo geratuko dira, eraikinaren edo bere instalazioen egiturazko akatsen ondoriozko konponketak, eta emakida gai diren instalazio eta ondasunei aplikaziokoa zaien araudian izandako aldaketen ondorioz sortutako aldaketak eta beti ere eraikin eta instalazioen egiturari eta eta kontserbazioari dagokionean Zentzu horretan, azpiegituren, instalazioen altzarien eta kirol ekipamenduaren funtzionamendu egokiaren eta haiek mantentzearen erantzule bakarra esleipenduna izango da. Azkenik, Kiroldegiko gela guztien garbiketa lanak ere mantentze lanen barruan daude.

Lokal eta instalaziotzat hartzen dira, kristalez estalitako fatxada- zatiak , kanpoko sarrerak eta eraikinetako estalkiak; baita kanpoko espazio guztiak ere.

Bere kontura egitea, suteen aurkako babes neurriak mantentzeko kontratazio berezia.

Esleipendunak 200.000 euroko inbertsioa egin beharko du fitness gelako ekipamenduan. Ekipamendu hori Udalarekin adostasunean egingo da, eta gutxienez aurreikusiko ditu, lan kardiobaskularrerako makinak (cicloergometroak, korrika egiteko zintak, remoergometroak...) eta indarra garatzeko eta entrenatzeko tresneria.

Kontratuaren xedearen ustiapenak sortutako gastuak ordaintzea, alegia, aurreko



paragrafoetan xedatutakoa eta zerbitzuen ustiapenak eragin dezakeen edozein eratako zerga, tasa eta arbitrioak.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Departamenduak, kirol instalazio guztiei ezarritako betebeharrak bete beharko ditu.

Kanon kontzeptuan erabakitako kopuruak ordaintzea.

Gai fiskaletan, lan arlokoetan, gizarte segurantzako gaietan eta laneko segurtasun eta higiene gaietan indarrean dauden xedapenak betetzea. Udalak ez du inolako erantzukizunik izando, baldin eta esleipendunak, arestian aipatutako betebeharren bat beteko ez balu edo berak izendatutako teknikoek segurantza arloan indarrean dauden xedapenen urratuko balute. Esandakoaren kaltetan gabe, administrazio zerbitzu emaileak esleipendunari eskatu ahal izango dio, esandako betebeharren betetzea egiazta dezala agirien bitartez.

Izaera pertsonaleko datuen babes eta sekretu profesional gailan indarrean dauden legezko xedapenak bete beharko ditu.

Kontratataren kontura izango dira, lizitazioaren eta esleipenaren iragarkiaren edo iragarkien gastuak eta zergak, eta indarrean dauden xedapenen arabera aplikaziozkoak diren beste guztiak, haiek adierazitako eran eta zenbatekoagatik.

Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako, abenduaren 13ko 15/1999 Lege organikoaren 4,5 eta 6 artikuluetan dauden lege-aurreikuspenei dagokienez, datuak jasotzerakoan ondorengo hartu beharko da kontuan:

Aurretiaz informazioa jasotzeko eskubidea. Fitxeroa izatea, bilketaren helburua eta informazio hartzailea (fitxeroaren arduraduna: Aretxabaletako Udala)

Planteatutako galderei derrigorrez erantzuna eman beharra.

Sarrera, zuzenketa, etete eta oposizio eskubideak gauzatzea aukera izatea.

- Dagokionaren berriazko eta zalantzarik gabeko baimena bere datu pertsonalak jasotzeko Adin txikikoen kasuan, gurasoen edo tutoreen baimena.
- Erabiltzaileei eskatzen zaizkien datuak, Udalaren fitxategi automatizatu batean jaso ahal izango dira. Datu horiek ondorengoak izango dira: Izen-abizenak, NA, telefonoa, helbidea, herria, posta kodea eta e-maila, kontu korrontearen zenbakia eta adin txikikoen kasuan gurasoen edo tutoreen baimena. Esleipendunak beste daturen bat jaso nahiko balu, administrazio kontratugileari jakinarazi beharko dizkio eta haren baimena beharko du.

Zerbitzu emakidadunak ezingo ditu tratatu ezta erabili ere datu horiek, kontratuaren helburuari berriazkoak zaizkionekin zerikusirik ez duten helburuetarako. Era berean ezingo ditu beste pertsona batzuen eskutan jarri, ezta kontserbaziorako ere.



Era berean, kontratatutako zerbitzuak amaituta, esleipendunak jasotako datuak eta dagozkien euskarriak Udalarari eman beharko dizkio, eta ezingo ditu gorde fitxategi edo datu horien edo egindako lanak direla eta sortu ahal izan dituen beste era bateko ereduren kopiarik, ez partzialik ezta osokorik ere.

Zerbitzu emakidadunak datuen segurtasuna bermatzeko eta haien aldaketa, galera edo baimendu gabeko tratamendu edo sarrerak saihesteko beharrezko diren neurri tekniko eta antolakuntzakoak hartu beharko ditu.

Administrazio kontratu egileak, edozein momentutan eta beti ere esleipendunaren jardueran traba larriak eragiten ez dituen bitartean/eragin gabe, egoki iritzitako segurtasun kontu-ikuskaritzak egin ahal izango ditu, bere betebeharrak eta konpromisoak betetzen dituela frogatzeko.

Zerbitzua emateko, izaera pertsonaleko datuak izatea ezinbestekoa denez, emakidadunak, oinarrizko mailari dagozkion segurtasun neurriak hartu eta bermatu beharko ditu beti ere abenduaren 13ko 15/1999 legearen 12 artikuluan eta Segurtasun Neurrien Araudia izeneko, ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuaren 6. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Kiroldegian lan egiten dutenei, Gipuzkoako herri titularitateko kirol instalazioen hitzarmen kolektiboa aplikatuko zaie.

Sekretu profesionalari dagokionez, esleipendunak eta kontratuaren xede diren lanak zuzenean egiten dituzten guztiek, konfidentzialtasun osoz tratatu beharko dute kontratuaren gauzatzean lortutako informazio oro. Informazioa, bertan deskribatzen diren zerbitzuen eremuan erabiliko da soilik.

Emakidadunak, bere kontura egingo du eskainitako zerbitzuen zabalpena, baita prezioena eta haietaz baliatzeko baldintzena ere. Zabalpen horretan, Udalaren nortasun korporatiboa ageri beharko da ezinbestean.

Esleipendunak, kontabilitate analitikoko edo kostuen sistema ezarri beharko du, dagokion egiaztatze gai izango dena finantza informazioa aurkeztuz eta bereziki administrazio emakidari egozten zaion galera-irabazien kontua, eta kostu ezberdinen egoztean erabilitako irizpideak, bereziki zuzeneko esleipenekoak ez direnetan

Esleipendunak, gune eta instalazio guztien Mantentze, Garbiketa eta Kontrol Liburua eramango du. Bertan izaera horrekin egindako lan guztiak jasoko dira, eta instalazioetan egin beharreko lan guztiak zehaztuko dira, bai prebentziozkoak baita zuzentzaileak ere, lan programaren planifikazioa garbi adieraziz.

Hizkuntza betebeharrak

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza-ofizialtasun bakoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen



erabilpena arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua.

Hizkuntza biak erabiltzea kontratua gauzatzeko baldintzetako bat da eta, bete ezik, kontratu honetako edozein klausula ez betetzeak oro har dakartzan ondorio berberak izango ditu.

Enpresa esleipendunak honako hizkuntza baldintzak bete beharko ditu:

Zerbitzuaz baliatzen diren erabiltzaileen hizkuntza eskubideak errespetatu beharko ditu. Horretarako, bere lana dela eta herritarrekin zuzeneko harremana duten langileak, elebidunak izan beharko dute, hau da, gai izan beharko dira egin beharreko lana EAeko bi hizkuntza ofizialetan egiteko (euskaraz nahiz gaztelaniaz) Plegu hauetan agindutakoarekin bat etorritz. Horretarako, Europako Hizkuntzen Marko Orokorraren arabera C1 maila eskatuko zaio zerbitzuaren kudeaketaz arduratuko den langileari. Horretarako, Europako Hizkuntzen Marko Orokorraren arabera B2 maila eskatuko zaie sorosleei, monitoreei eta harrera zerbitzuko langileei. Beren hizkuntza gaitasuna probatzeko agiririk ez duten langileek, udalak horretarako egingo dituen euskara frogetan parte hartu beharko dute. Froga horietan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo.

Ahal den guztietan zerbitzua euskaraz eskainiko du, eta euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan egingo ditu erabiltzaileei zuzendutako komunikazio guzti-guztiak (ahozkoak zein idatzizkoak) . Irizpide berbera jarraituko da, emakidadunak baimendutako publizitate edo propagandarako elementuekin, beti ere lehentasuna euskarari emanez.

- o Edonola ere, zerbitzu-hartzaileak 16 urtetik beherako haur eta gazteak badira, zerbitzu osoa euskaraz bakarrik emango da.
- o Udalarekiko harremanetan, ahal den neurrian euskara erabiliko da, bai ahozko komunikazioetan bai idatzizkoetan.

Enpresa esleipendunak zerbitzuen erabiltzaileen hizkuntza eskubideak errespetatu beharko ditu eta horretarako erabiltzaileekin harreman zuzena izango duten langileek elebidunak izan beharko dute, hau da, euren lan funtzioak EAeko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan gauzatzeko erabateko gaitasuna izan beharko dute, euskaraz zein gaztelaniaz, Plegu hauetan agindutakoarekin bat etorritz.

Era berean kontratistak, euskara, nahiz euskara eta gaztelania erabiliko ditu, erabiltzaileei zuzendutako komunikazio, inprimaki eta ohar guztietan . Irizpide berbera jarraituko da, emakidadunak baimendutako publizitate edo propagandarako elementuekin, beti ere lehentasuna euskarari emanez.

Kontratuaren epea amaitzean, zerbitzua emateko erabilitako ondasun eta instalazioak udalari itzuliko zaizkio.

Esleipendunak, kontratuaren helburua betetzeko beharrezko diren langileak jarriko ditu.



Esleipenduna izango da, zerbitzura atxikitako langileen arduradun eta erantzule, ondorio guztietarako eta ez da inolako funtzionario- nahiz lan-dependentzia loturarik sortuko Udalaren, esleipendunaren eta bere menpeko langileen artean.

ZORTZIGARREN KLAUSULA. Udalaren eskubideak eta betebeharrak.

Udalak, kontratuaren oreka ekonomikoa berrezarri beharko du, dagokion alderdiaren alde, ondorengo kasuetan:

1. Aretxabaletako Udalak, interes publikoko arrazoiak tarteko, kontratatutako zerbitzuaren ezaugarriak aldatzen dituenean.
2. Udalaren jokatzeko erak, kontratuaren ekonomia apurtzea dakarrenean.
3. Ezinbesteko arrazoeik , kontratuaren ekonomia apurtzea dakartenean. Ondorio horietarako, ezinbesteko arrazoitzat jotzen dira, Sektore Publikoaren Kontratuen, urriaren 30eko 30/2007 Legearen 214 artikuluan aipatzen direnak.

Emakidadunaren kudeaketa fiskalizatzea. Horretarako, administrazio kontratu egileak zerbitzua, instalazioak eta lokalak ikuskatu ahal izango ditu eta biat administrazioko emakidaren xedearekin zerikusia duen dokumentazioa. Egoki diren aginduak ere eman ahal izango ditu, dagokion emakida mantentzeko edo berreskuratzeko.

Zerbitzuaren zuzeneko kudeaketa behin behingoz hartzea, esleipendunak, edozein arrazoiengatik ematen ez duenean edo eman ezin duenean. Zerbitzua ez ematea, emakidadunari egotz dakiokkeen arrazoiren bategatik bada, akats larri edo oso larritzat hartuko da, beti ere ez ematearen iraupenaren arabera.

Emakida erreskatatzea, emakidadunak, zerbitzuaren emakida kolokan jarriko lukeen urraketa oso larria egiten badu edota Administrazioaren aldaketa aginduak beteko ez balitu.

Kontratua bertan behera uztea, ordenamendu juridikoan aurreikusitako arrazoiertako bategatik.

BEDERATZIGARREN KLAUSULA. Kontratatze gaitasuna egiaztatzea.

Zuzenbidezko eta jarduteko gaitasuna izan eta kontratatzeko inolako debekurik ez duten, eta beren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta tekniko edo profesionala egiaztatuko duten pertsona fisiko zein juridikoek, espainolek nahiz atzerritarrek, aurkeztu ahal izango dituzte eskaintzak.

1. Enpresarien jarduteko gaitasuna ondorengo eran egiaztatuko da:



A. a) Enpresaria Pertsona juridikoa bada: eskritura, edo eratze-agiriaren, estatutuen edo fundazio egintzaren bitartez, non bere jarduera arautzen duten arauak jasoko diren, pertsona juridikoaren arabera, bakoitzari dagokion Erregistro ofizialean inskribatuak.

B. Europako Batasuneko kideak diren Estatuetak naziotasuna duten, enpresari ez espainolen jarduteko gaitasuna, kokatuta dauden Estatuaren legediarekin bat etorri dagokion erregistroan duten inskribapenaren bidez frogatuko da, edo bestela, erregelamenduz ezarritako terminoetan egindako zinpeko aitorpena edo ziurtagiria aurkeztuz, aplikaziozko xedapen komunitarioekin bat etorri.

C. c) Gainontzeko atzerriko enpresariak, dagokion estatuan Espainiak duen Misio Diplomatiko Iraunkorraren, edo enpresaren egoitza kokatuta egongo den lurralde eremuko Kontsul Bulegoaren txostena erabiliz frogatuko dute beren jarduteko gaitasuna.

2. Enpresariak, Sektore Publikoko Kontratuen Urriaren 30eko 30/2007 Legearen 49. artikuluan ezarritako Kontratatzeko inolako debekurik ez dutela frogatu ahal izango dute:

A. a) Egiaztatze hori, lekukotza judizialaren bidez edo administrazio ziurtagiriaren bidez egin ahal izango da, eta kasua bada eta agiri hori agintaritzaren eskudunak eman ezin duenean, administrazio agintaritzaren, notario baten edo gaitutako erakunde profesional baten aurrean egindako zinpeko aitorpenaren bidez ordezkatu ahal izango da.

B. b) Europako Batasuneko kide diren Estatuetak enpresak direnean, eta aukera hori dagokion Estatuaren legerian aurreikusita badago, agintari judizial baten aurrean egindako aitorpen baten bitartez ordezkatu ahal izango da.

3. Enpresariaren kaudimena:

3.1 3.1 Enpresariaren kaudimen Ekonomikoa eta Finantzarioa, ondoren adieraziko diren bitarteko baten edo batzuen bidez egiaztatu ahal izango da::

a) Finantza Erakundearen Aitorpen egokien bitartez edo, edo hala balegokio, arrisku profesionalengatik kalte-ordainak estaliko dituen aseguruak dutela egiaztatuko duen frogagiriaren bitartez.

b) Merkataritza Erregistroan edo dagokion Erregistro Ofizialean aurkeztutako urteko kontuen bitartez. Kontuak Erregistro Ofizialetan aurkeztera behartuak ez dauden enpresariak, behar bezala legeztatuta egongo diren kontabilitate liburuak aurkeztu ahal izango dituzte, egiaztaketa alternatibo bezala.

a) Negozioen bolumen globalari buruzko aitorpena edo, hala badagokio, kontratuaren helburuari dagokion jardueren eremuan, negozioen bolumenari buruzkoa, beti ere enpresaren sortze dataren edo jardueren hasieraren arabera erabilgarri diren azken hiru ekitaldikoa, beti ere negozio bolumen horren erreferentziak dituen neurrian. .



Kaudimen teknikoari dagokionez, azken bost urte hauetan kiroldegietan aurrera eramandako kirol jardueren kudeaketan duen eskarmentua egiaztatu beharko du, erakunde kontratu egileak emandako ziurtagiriaren bidez.

e) Enpresariaren eta enpresako zuzendaritza osatzen duten langileen titulazio akademikoak eta bereziki, kontratuaren gauzatzeaz arduratuko diren langileenak.

HAMARGARREN KLAUSULA. Proposamenak eta Administrazio Agiriak aurkeztea.

Eskaintzak, Udaletxean aurkeztuko dira (Otalora kalea 1) jendaurreko ordutegian, lizitazioa iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta kontratu egilearen perfilean publikatzen den hurrengo egunetik hasi eta 26 egun naturaleko epean.

Proposamenak, postaz, telefaxeaz, edo bitarteko elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabiliz aurkeztu ahal izango dira, Herri Administrazioen Erregimen Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Komunaren, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarrita dauden lekuetako edozeinetan.

Eskaintzak postaz bidaltzen direnean enpresariak, justifikatu egin beharko du Postan bidalketa noiz egin duen, eta kontratazio organoari egun berean, eskaintza bidalia izan dela jakinarazi, telex, fax edo telegrama bitartez, bertan, espedientearen zenbakia, kontratuaren helburuaren titulu osoa eta hautagaiaren izena adieraziz.

Adierazitako telefax, fax edo telegrama hartu izanaren frogagiria, udal Idazkariak egingo duen eginbidearen bitartez egingo da. Bi betekizun horiek betetzen ez badira, proposamena ez da onartuko, kontratazio organoak, lizitazio iragarkian adierazitako epea baino beranduago, hau da, jarritako eguna eta ordua baino beranduago jasotzen badu. Edozein erataraz, jarritako eguna pasa eta hamar egunera dokumentazioa oraindik ere jaso gabe badago, ez da onartua izango.

Erabili ahal diren bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoek, gainera, Sektore Publikoaren Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen hemeretzigarren xedapen gehigarrian ezarritako betekizunak bete beharko dituzte.

Lizitatuzaile bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Era berean ezingo du, beste batzuekin batera Aldi Baterako Enpresa Batasunik sortu, baldin eta bakarka egin badu, ez eta Aldi Baterako bat baino Enpresa gehiagotan egon. Arau hauek hausten dituzten proposamenik ez da onartuko.

Proposamena aurkezteak, Plegu honetako klausulak bete betean eta baldintzarik gabe onartzea dakarkio enpresariari.

Lizitazioan parte hartzeko proposamenak, hiru kartazal itxietan aurkeztuko dira. Kartazal horiek lizitatuzaileak sinatuta egongo dira eta bertan egoitza adierazi beharko da jakinarazpenak egin ahal izateko; baita kartazalaren izenburua eta ondorengo lema ere:



“Aretxabaletako kiroldegiaren kudeaketa osoaren kontratazioa lizitzeko proposamena”
Kartazalen izen ondorengoa da:

- **“A” Kartazala: Administrazio-Agiriak**
- **“B” Kartazala: Gainerako agiriak:**

Kartazal bakoitzean aurkeztu beharreko agiriak jatorrizkoak izan beharko dira, edo kopia kautotuak, indarrean dagoen Legeiarekin bat etorritik.

Kartazal bakoitzaren barruan ondorengo agiriak aurkeztu beharko dira eta beren zerrenda zenbakitua:

A kartazala:

ADMINISTRAZIO-AGIRIAK

a) Enpresariaren nortasun juridikoa egiaztatuko duten agiriak.

b) Ordezkatza egiaztatuko duten agiriak

- Beste baten izenean jardun edo eskaintzak sinatzen dutenek, ordezkatza eskumenaren notario-kopia aurkeztu beharko dute

Lizitatuak pertsona juridikoa bada, ahalorde hori Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko da, legez hala eskatu ahal denean.

- Era berean, ordezkatza ondorioetarako eskumen askietsiaren jabe den pertsonak, bere Nortasun Agiriaren, administrazio konpultsa duen fotokopia edo notario-testigantza

c) Zinpeko berariazko aitortpena, Sektore Publikoaren Kontratuen, urriaren 30eko 30/2007 Legearen 49. artikuluan kontratatzeke zehaztutako debekurik ez daukala agertuz.

Aitortpen horretan espresuki adieraziko da, indarrean dauden xedapenek xedatutako Zerga-betebeharrak eta Gizarte-Segurantzarekikoak kitatuta dauzkala, beti ere, esleipena egingo zaion enpresariak, betekizun horren frogagiria behin betiko esleipena egin aurretik aurkeztearen kaltetan gabe.

e) Posta elektronikoa, jakinarazpenak egin ahal izateko.

e) Kontratuaren ondorioz sor litezkeen arazo zuzenak edo zeharkakoak konpondu ahal izateko Atzerritar enpresek Espainiako Epaitegi eta Auzitegien mendekotasuna onartuko duten aitortpena aurkeztu beharko dute, beraien nazioko epaitegiei uko egiten dietela garbi adieraziz

**B KARTAZALA:
Gainerako agiriak:**



Sinatuta.

a) Antolaketa proiektua.

Hamargarren klausulan aipatutako guztiak jaso beharko ditu.

b) Giza baliabideak.

c) Lizitatzailleek proposatutako hobekuntzak.

HAMAIKAGARREN KLAUSULA. ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK.

A) GIZA BALIABIDEAK (50 puntura bitarte).

Lizitatzailleek, aitorten bat aurkeztu beharko dute adieraziz, jarraian adieraziko diren ezaugarriak edukiko dituzten zenbat langile kontratatuko dituzten:

- 5 puntu emango dira 3 hilabetetik gora langabezian daraman eta ondorengo prestakuntza edo baliokidea duen pertsona kontratatzeagatik Igerilekuen eta spa- instalazioen mantentze lana; etxebizitza eta eraikinetako instalazio elektrikoan mantentze lana eta azkenik, eguzki plaken klimatizazio eta mantentzea (15 puntu gehienez ere)
- 5 puntu emango dira hiru hilabetetik gora langabezian dagoen eta garbiketa industrialean prestakuntza duen, kontratatutako langile bakoitzeko. (gehienez ere 15 puntu)
- 5 puntu emango dira, bezeroarentzako arreta zerbitzuan urte betetik gorako eskarmentua duten pertsonak kontratatzeagatik. (gehienez ere 10 puntu)
- 10 puntu emango dira gizarte bazterketa arriskuan dauden talde bateko kide den pertsona bat kontratatzeagatik (langabetuak, ezgaituak, iraupen luzeko langabetuak etab...)

Ez dira inolaz ere balorazio irizpiderik pilatuko

B) ANTOLAMENDU PROIEKTUA (Gehienez ere 40 puntu).

A.1.- INSTALAZIOAREN KUDEAKETA, USTIAKETA ETA MANTENTZE PLANA (20 puntura arte.)

Ondorengoak baloratuko dira:

- Bazkide-erabiltzaileak kaptatzeko eta haien leialtasuna lortzeko plana: Baloratuko diren aspektuak ondorengoak izango dira: Erabiltzaileak kaptatzeko planaren zehaztapenak. Abonuen aurreikuspena eta proposatutako abonua moten egokitasuna.



- Giza baliabideak eta antolamendu egitura. Ondorengo aspektuak baloratuko dira: Lanpostu ezberdinetan hartuko den langile konpurua. Langile bakoitzaren funtzioak zehaztea. Esleipendunaren izenean zerbitzua zuzenduko duen pertsonaren perfila, horretarako eskatzen diren ezaugarriak adieraziz.
- Zerbitzuen edukiak: Sorospen zerbitzua, harrera, muskulazio gela eta kirol jardueren programa (ordutegiak, ezaugarriak, helburuak edukiak eta progresioa, metodologia, materiala eta eguneroko funtzionamendua)
- Kalitate plana: Jarduera protokoloak, jarraipen eta kontrol neurriak, eta instalazioen garbiketa eta mantentze planak.
- Koordinazio sistemak, Aretxabaletako Udalarekin.

A.2.- EKONOMIA BIDERAGARRITASUN PLANA (20 puntura arte)

Baloratuko diren puntuak ondorengoak izango dira:

- o Aurreikusitako diru-sarrera eta gastuen justifikazio egokia, zifra errealistak aurkezteko.
- o Abonu ezberdinen tarifak beherantz hobetzea.
- o Egindako inbertsioen amortizazio epea.
- o Kudeaketaren ordainsari kontzeptuan (diru-sarreraren %6a gehienez ere) eta gastu orokorren kontzeptuan (gastu guztien %10a gehienez ere) ezarritako gehiengoak betetzea.

C) IZITATZAILEEK PROPOSATUTAKO HOBEKUNTZAK (10 puntura arte)

HAMABIGARREN KLAUSULA. Kontratazio Mahaia

Kontratazio Mahai adieraziko den moduan osatuko da:

- Alkatea, Mahaiaren presidentea, izango dena.
- Udalbatzaren idazkaria, Bokala.
- Udalbatzaren kontu-hartzailea, Bokala.
- Kiroletako zinegotzia, bokala.
- Berdintasun zinegotzia, bokala:
- Kirol Teknikaria, Mahaiaren idazkari lanetan jardungo duena.

HAMAHIRUGARREN KLAUSULA. Administrazioaren eskumena

Kontratazio organoak, ondorengo eskumenak ditu, Sektore Publikoaren Kontratuen, urriaren 30eko 30/2007 Legearen 194 artikuluekin bat etorritz:

- a) Kontratua interpretatzekoa.
- b) Bere betetzeak sortarazten dituen zalantzak argitu eta konpontzekoa.
- c) Interes publikoko arrazoiak tarteko, kontratua aldatzekoa.
- d) Kontratua bertan behera uztea erabakitzea, eta egindakoaren ondorioak zehaztea.



HAMALAU GARREN KLAUSULA. ZIGOR-ERREGIMENA.

1.- Ondorengo arau-hausteak zigortuko dira:

a) Arau-hauste arinak: kontratu honekin bat etorritik esleipendunak bere gain hartu dituen betekizunak behar bezala ez betetzea, eta gainera

- Zerbitzuen erabiltzaileak/bazkideak behar bezala ez tratatzea.
- Zerbitzuen irekitze eta ixte ordutegia ez betetzea, hilabetez behin bada ere.
- Instalazioak eta bertako tresneria behar bezala ez garbitzea, egun bakarrean bada ere.

b) Arau-hauste larriak: Aipatutako betebeharrak horietako batzuk nahita ez betetzea, eta gainera:

- Aurrez zigortu diren bi arau-hauste, urte beteko epean berriro egitea.
- Udalak, zerbitzuaren funtzionamendu egokirako garrantzizko gaietan agindutakoa ez betetzea.
- Lokalak eta instalazioak funtzionamendu, kontserbazio eta garbiketa egoera onean ez mantentzea, edo beharrezko diren mantentze lan eta konponketak, edozein izanda ere haien hondatzeko arrazoia eta zenbatekoa, ez konpontzea kontratuak dirauen bitartean,. Hortik kanpo geratuko dira, instalazioak eta alokatutako kirol instalazioari aplikaziozkoak zaizkion legezko aldaketetatik sortutako aldaketak, eta beti ere eraikin eta instalazioen egiturari eta kontserbazioari dagokienean
- Instalazioaren udal jabetza etengabe edo behin baino gehiagotan ezkutatzea.
- Oinarriko ekonomia betebeharrak aurre ez egitea (ez ordaintzea) hala nola, kanona eta bere kargura dagoen langileei dagokozkienak.
- Zerbitzuen emakida, egun batetik hiru egunera bitarteko epean geratzea edo etetea.
- Enpresaren kudeaketarekin zerikusia duen dokumentazioa faltatzea eta bereziki kontabilitatea.

c) Arau-hauste oso larriak:

- Ezarritako mugaz gaineko tarifak aplikatzea, eta kontratistak nahiz bere menpeko langileek, partikularrengandik edo bezeroengandik, zerbitzuen truke dirua kobratzea.
- Plegu honetan jasotzen diren aseguru polizak ez kontratatzea edota iraungita edukitzea.
- Zerbitzua, jarraipenez eta erregularitasunez ez ematea, horiek izanik zerbitzu publikoa definitzen duten elementuak. Zerbitzuaren emakida geratzea, etetea edo bertan behera uztea arau-hauste larrienetakoa da; horrela bada erreskatearekin edo kontratuaren iraungitze aitorpenarekin zigortuko da.
- Ordutegietan atzerapen sistematikoa.
- Zerbitzuen emakida, hiru egunetik gora geratuta edo etenda edukitzea, ez bada ezinbesteko arrazoietatik.



- Kanon kontzeptuan erabakitako kopuruak ez ordaintzea.
- Lan arloko gaitan, gizarte segurantzakoetan eta laneko segurtasun eta higiene gaitan indarrean dauden xedapenak ez betetzea.
- Oro har, esleipendunak funtsezko edozein kontratu betebeharrak ez betetzea.

3. Ara-hauste kasuetarako emakidadunari jarriko zaizkion zigorrak ondorengoak izango dira:

- a) Arau hauste arinak, 300,51 eurotik 3.000 eurora bitarteko isunarekin zigortuko dira.
- b) Arau hauste larriak, 3.005 eurotik 6.010 eurora bitarteko isunarekin zigortuko dira.
- c) Arau hauste oso larriak, 6.000 eurotik 60.000 eurora bitarteko isunarekin zigortuko dira.

Zigorrekin batera dagokion zigor espedientea irekiko da.

HAMABOSGARREN KLAUSULA. Kontratuaren betetzearen zainketa

1.- Jarraipen Batzardea

Jarraipen Batzardea osatuko da kontratuaren betetzearen zainketa, beharrezko diren jarraibideak agintzeko eta oniritzia emateko:

- a) Instalazioen erabilera planari
- b) Ekintzen programari
- c) Prezioen proposamenari
- d) Inbertsioen proposamenari, baldin eta baleude.

Funtzio horiek bete ahal izateko Batzardea derrigorrez elkartu beharko da, gutxienez, lau aldiz urtean (hiruhilero). Salbuespenez, egoki irizten den bakoitzean elkartuko da, batzardearen presidentearen proposamenaz edota enpresa emakidadunaren ordezkariaren eskariz.

Era berean, esleipendunak edo Udalak eskatzen duen bakoitzean elkartuko da.

Jarraipen batzardea ondorengo kideek osatuko dute:

- Aretxabaletako Udaleko Alkate-Udalburuak.
- Erakunde emakidadunaren ordezkariak.
- Aretxabaletako Udaleko Kirol zerbitzuaren Zinegotziak.
- Aretxabaletako Udaleko kontu-hartzaileak.
- Aretxabaletako Udaleko Idazkariak.



HAMASEIGARREN KLAUSULA. Proposamenak irekitzea.

Kontratazio Mahaia, eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo laugarren lanegunean osatuko da, eguerdiko 13:00etan.

Beharrezkoa balitz, Mahaiak, hiru eguneko epea emango du, gehienez ere, lizitatuzaileak aurkeztutako agirietan antzemandako, konpon daitezkeen akats edo hutsegiteak zuzentzeko.

Jarraian "B" kartazala ireki, aztertu eta kalifikatuko da.

Proposamenak irakurri ondoren, eta haiek Pleguetan ezarritako irizpideak eta ponderazioak kontuan izanik baloratzeko, beharrezko iritzitako txosten guztiak eskatu ahal izango ditu Mahaiak,.

HAMAZAZPIGARREN KLAUSULA. Dokumentazioa eskatzea.

Kontratazio organoak, ekonomikoki eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatuzaileari eskatuko dio, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasitako hamar eguneko epean, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak kitatuta dituela egiaztatuko duten frogagiriak aurkez ditzala, edo kontratazio organoari baimena eman diezaiola, eskatutakoa egiaztatuko duten agiriak zuzenean eskatzeko. Baita Kontratua gauzatzeko erabiliko dituen bitartekoak egiazki dituela egiaztatuko duten frogagiriak, beti ere Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 53.2 artikuluekin bat etorritik eta egoki den behin betiko bermea eratu izanarenak.

HEMEZORTZIGARREN KLAUSULA. Behin-betiko bermea:

Esku artean dugun lizitazioaren ezaugarriak kontuan izanik ez da behin betiko bermerik eskatuko.

HEMERETZIGARREN KLAUSULA. KONTRATUA ESLEITZEA

Eskatutako dokumentazioa jaso ondoren, kontratazio organoak kontratua esleitu egin beharko du, dokumentazioa jaso eta hurrengo bost lanegunetako epean.

Ezingo da lizitazio bat hutsik utzi, Plegu honetan aipatzen diren irizpideekin bat etorritik onargarria den eskaintza edo proposamenik badago.

Esleipena arrazoitu egingo da, hautagai edo lizitatuzaileei jakinaraziko zaie eta horrekin batera, kontratu egilearen perfilean argitaratuko da.



Jakinarazpenak edozein kasutan, kanpoan geratu den lizitatuileari edo baztertutako hautagaiari esleipen erabakiaren aurka, arrazoitutako errekurtsua tartekatzen utziko dion beharrezko informazioa edukiko du. Eta bereziki ondorengoak azalduko ditu:

- Baztertutako hautagaiei dagokienez, beren hautagaitza baztertu izanaren arrazoiak azalpen laburra.
- Esleipen prozeduratik kanpo geratu diren lizitatuileei dagokienez, beren eskaintza ez onartu izanaren arrazoiak, era laburrean.
- Edozein kasutan, esleipendunaren izena, hautatua izan den esleipenlariaren proposamenak dituen, hautaketarako erabakigarriak izan diren ezaugarriak eta abantailak, eskaintzak onartu zaizkien gainontzeko lizitatuileen eskaintzek ez zituztenak.
- Jakinarazpenean eta kontratatzailearen perfilean, haren formalizazioa noiz egingo den adieraziko da.

HOGEIGARREN KLAUSULA. Kontratua formalizatzea.

Kontratua administrazio agirian formalizatuko da, behin betiko esleipena jakinarazten den egunetik hasitako hamar laneguneko epean. Agiri hori nahikoa izango da edozein erregistro publikoetara sartzeko.

Kontratistak, kontratua eskritura publikoan jaso dadila eskatu ahal izango du, sortutako gastuak bere kontura izanik.

HOGEITABATGARREN KLAUSULA Kontratua amaitzea eta instalazioak Udalarituztzea.

1. Kontratu hau, dagokion legerian izaera orokorreaz aurreikusitako edozein arrazoiengatik, edota klausulen plegu honetan ezarritako partikularengatik amaitzen bada, instalazioetan egindako hobekuntza guztiak Udalaren esku geratuko dira, eta baita kontratuak iraun duen bitartean ustiapen kontuen kontura erositako ondasun guztiak ere.

2. Eraikina, mota guztietako instalazioak eta erabili den materiala, erabiltzeko moduan egon beharko dute, eta ondorioz, zerbitzua ematen jarraitzea ahalbidetu beharko dute.

Udaleko zerbitzu tekniko gaituek, maiztasunez ikuskatuko dute eraikina eta instalazioak, eta beharrezkoa balitz, egoki dena egiteko aginduak emango dituzte ondasunak Udalaren eskura egoera onean itzul daitezen, ustiapen kontuen kontura

3. Instalazioa, inolako karga eta grabamenik gabe itzuli beharko da, kenduta instalazioen bazkideek, plegu honetan ezarritakoaren arabera egindakoa, kontratuan jasota dagoena eta emakidadunak egindako kudeaketa proposamenean onartua, edota ondoren administrazio emakida hau fiskalizatzeaz arduratzen den organo gaituak onartua.

4. Instalazioa, hitzartutako epea amaitzen denetik hasitako 15 egun naturaleko luzaezina



izango den epean hustu beharko da.

HOGETABIGARREN KLAUSULA KONTRATUA BURUTZEA

Kontratista behartua dago zerbitzua kontratuan ezarritako ezaugarrien arabera antolatzerara eta ematera eta bertan aipatzen diren epeetan.

Edozein erataria, Administrazioak beharrezko diren ahalmen guztiak edukiko ditu, zerbitzuen martxa ona ziurtatzeko.

HOGETAHIRUGARREN KLAUSULA Kontratua aldatzea eta Oreka Ekonomikoa mantentzea

Aldaketek, kontratuaren finantza erregimenari eragiten diotenean, Administrazioak konpentsatu egin beharko dio kontratistari, kontratuaren oreka ekonomikoa mantentzeko. Ez da konpentsaziorik ordainduko, baldin eta Administrazioak zerbitzuaren garapenari dagokionean emandako erabakiek, inolako ondorio ekonomikorik ez badute.

Kontratuaren oreka ekonomikoa neurri zehatz batzuen bitartez berrezarriko da, hala nola, erabiltzaileek ordaintzen dituzten tarifak aldatuz, kontratuaren iraupena jaitsez, eta oro har, kontratuaren eduki ekonomikoaren klausulak aldatuz.

Kontratuaren ekonomiaren haustura nabarmena eragiten duten, ezinbesteko arrazoiak eta administrazioaren jarduketak daudenean, kontratuaren epea luzatu ahal izango da; luzapen hori ezingo da, hasierako iraupenaren %10etik gorakoa izan eta legez aurreikusitako gehieneko mugak errespetatu beharko ditu.

HOGETALAU GARREN KLAUSULA Kontratua Bertan behera uztea

Kontratua bertan behera uzteko arrazoiak, Plegu honetan eta Sektore Publikoko Kontratuen, urriaren 30eko 30/2007 Legearen 206 artikuluan zehazten direnak izango dira, e) eta f) letretan aurreikusitakoak izan ezik, eta Sektore Publikoko Kontratuen, urriaren 30eko 30/2007 Legearen 262 artikuluan ezarritakoetan.

HOGETABOSGARREN KLAUSULA Kontratuaren Erregimen Juridikoa

Plegu edo Orri hauen arabera egindako kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta bere gauzatze, esleipen, ondorio eta iraungitzeari dagokionez Pleguetan ezarritakoak arautuko du eta kontratuan bertan zehaztu ez den guztiari dagokionez, ondoko arautegia aplikatuko da: Sektore Publikoko Kontratuen, urriaren 30eko 30/2007 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen, urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duen, maiatzaren 8ko 817/2009 Erret Dekretua, eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartzen duen, urriaren 12ko 1098/2001 Erret Dekretua, 30/2007 Legearen kontra egiten ez



Aretxabaletako
Udala

duen guztian, eta indarrean badago 817/2009 ED indarrean sartu ondoren; osagarri gisa, zuzenbide administrazioako gainontzeko arauak aplikatuko dira eta haiek ezean zuzenbide pribatuko arauak. .

Kontratutik sortzen diren auziak administrazioako auzigaietarako jurisdikzioaren menpe geratuko dira, Sektore Publikoko Kontratuen, urriaren 30eko 30/2007 Legearen 21.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Aretxabaletan 20__ (e)koren..... (e) an

berbera

Sinatuta : _____.